

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LEHENDAKARITZA

### 3536

*EBAZPENA, 2025eko uztailaren 14koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena, Ezkerraldea-Meatzaldea Bus erakundeari emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzakerakundearen izaera aitortzeko dena.*

Otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren bidez, Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetzakerakundearen aitortza arautu zen, emakumeen eta gizonen berdintasuna ahalbidetzen duten baldintzak sustatzeko, bai eta berdintasuna eragozten duten oztopoak kentzea ahalbidetzen dutenak ere; horretarako, emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasunaren alde gizar-tean eta lan-eremuan sor daitezkeen ekimenak bultzatu, eta eremu horretan erakundeek egin duten lana aitortu beharra dago.

Dekretu horren itzalpean, Ezkerraldea-Meatzaldea Bus erakundeak aurkeztutako eskabidea ikusita eta erakunde horrek emakumeen eta gizonen berdintasun-politika bat garatzeko sinatutako konpromiso-agiriak balioetsi ondoren, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ezkerraldea-Meatzaldea Bus erakundeari emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzakerakundearen izaera aitortzea, 11/2014 Dekretuan ezarritako zehaztapen eta baldintzen arabera, eta erakunde horrek emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako politika bat garatzeko sinatutako konpromiso-agiriak oinarri hartuta (11/2014 Dekretua, otsailaren 11koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzakerakundearen aitortzea arautzen duena). Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako lantokiei soilik aitortzen zaie aitortpena, 11/2014 Dekretuaren 2. artikulua a eta b apartatuetan ezartzen den bezala.

Bigarrena.– Aitortpena indarrean dagoen artean, 11/2014 Dekretuaren 12., 13. eta 14. artikuluekin bat etorritik, Ezkerraldea-Meatzaldea Bus erakundea aitortpen horretaz balia daiteke egokitzat jotzen duen irudizko korporazio-osagai orotan.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beronen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 14a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria,  
MIREN ELGARRESTA LARRABIDE.